


## Pirinioen bihotzean zizelkatutako gozokia

Hasi da uda Ordesako Parke Nazionalean eta Perdido mendian. Eguna argitzearekin batera, ugatz bat ageri da Tres Sorores mendigune enblematikoaren inguruan hegan. Mila metro beherago, sarrion multzo bat ikusten da, nagia ateratzen bezala, pinu beltzekin eta errododendrozko mantu ikusgarri batekin nahasian. Ibar hondoan, Arazas ibaiaren urek jauzi egiten dute Cola de Caballotik behera, mendizale zailduak eta txangozaleak iritsi bitartean.




**Ehun urterako bidean.** Hor daude Ramond de Carbonnières frantziar botanikoak eta geologoak egin zituen espedizioak, zeinak lehenengoz zapaldu baitzuen Perdido mendiaren gailurra, 1802an; hor Lucien Briet argazkilaria eta idazlearen dibulgazio-lana, eta beste pirineista batzuen ibilerak. Horiei esker, Parke Nazionala izendatu zuten Ordesa, 1918an. Espainiako Estatuan izendatu zuten bigarrena izan zen, Europako Mendien ondotik, eta 15.608 hektareata handitu zuten 1982an. Orduz geroztik, Perdido mendiak eta lau ibarrek osatzen dute: Ordesa, Pineta, Escuin eta Añisclo.



### Mendia ezagutu eta sentitu.

Huescako parkeari neurria hartzen hasteko, Torlako bistari-etxea da lekurik aproposena. Han dauden informazio-panelek, maketek eta ikus-entzunezko piezek ezin hobeki islatzen dute mendiak berekin dituen erronkak, jakinduria eta indarra. Informazio- eta erakusketa-gune iraunkor horretan biltzen dira Ordesako flora, fauna, geologia eta etnografia, eta baita duela 57 milioi urte han bizi izan zen krokodilo baten masailezurraren fosila ere.



### Beldurrik gabe, baina arretaz.

Dozenaka ibilbide daude seinale bidez adieraziak, Parke Nazionala batetik bestera zeharkatzen dutenak. Mendira doanak, lagunduta joan behar du beti, ez bakarrik; beldurrik ez zaio eduki behar, baina arretaz ibili behar da, eta ibilbide bakoitzak eskatzen duen esperientzia eta prestaketa fisikoak ere ezinbestekoak dira. Arropa eta tresneria egokiak behar dira, eguraldia eta temperatura aldatu egin baitaitezke ibilaldia egiten ari garela, eta arreta jarri behar zaie parkeko langileek ematen dituzten eguraldi-iragarpenei. Abiapuntu guztietan, kartelak jarri dituzte aholkuak emateko, indarrean zer araudi dagoen adierazteko eta ibilbide bakoitzak, gutxi gorabehera, zenbat irauten duen eta zer ezaugarri dituen jakiteko. Cola de Caballo ur-jauziraino daraman ibilbideak erakartzen du jende gehien, argazkiak ateratzeko leku paregabea da eta. Ibilbideak 550 metroko desnibela gaintzen du, eta bidean, baso misto sarri bat zeharkatuz, hiru ur-jauzirekin topo egingo du ibiltariak: Arripas, La Cueva eta El Estrecho. Behin desnibela gaintuta, Soasoko zirkua agertuko zaio, belarrez inguratutako sakonune handi-handia; handixe egiten du jauzi urak, argazkilarien liluragarri.

**GEHIAGO JAKITEKO**

[www.consumer.es/en-imagenes](http://www.consumer.es/en-imagenes)